

Egun on guztioi.

A mailako epaimahaikideen izenean mintzatuko naiz.

Parte hartzaileen kopurua gora behera, azpimarratzekoa da idazle gazteek oraindik ere idazten jarraitzen dutela, maila onarekin gainera.

Honelakoetan gertatu ohi den bezala, gaurkotasuneko gaiak agintzen dute, eta horiek izan dira errepikatuenak irakurri ditugun testuetan. Gaiak, ordea, sarri askotan bigarren mailakoak izaten dira literaturan. Gai horiek literarioki landu behar dira.

Alde horretatik oso eskertzekoa da irakasleen eta beste laguntzaileen ahalegina gazteen ideiei forma ematen aholkatzearen aldetik.

Amaitzeko esan nahi dugu oso garrantzitsua dela honelako ekimenen bitartez literatura zaletasuna bultzatzeari ez uztea, gazteei amesten laguntzea, hitzaren bidez mundu berriak eraikitzen jarraitzea.

(Aktako testua)

Zorionak guztioi.

Bilbon, 2015eko martxoaren 18an

Manu Lopez Gaseni